

Manifiesto por la paralización del metro en Donostia

Recogida de adhesiones

SATORRALAIA :: 28/03/2021

La construcción del Metro sigue representando hoy en Donostia uno de los mayores problemas que afectan a la ciudad.

Metroa Gelditu MANIFESTUA - Atxikimendu bilketa /

Donostiako Metroaren eraikuntza gure hiriak nozitzen dituen arazo nagusienetako bat izaten ari da. Obrako gertakari larriek eta gainkostuek herritarren artean eragin duten kezka eta haserreaz gain, Mirakontxa-Easo tartearen Eraikuntza-Proiektu berrian azpigitura-lan handi hori egiteak dituen arriskuei buruz iragarpen benetan izugarriak egiten direla gaineratu behar da orain. Gure ustez, Donostiako Metroarekin egin den errakuntza handia erakusten du egoera honek modu ukaezinean. Hori dela eta, iritzi publikoari mobilizatzeko dei egiten diogu, Eusko Jaurlaritzak proiektua berehala gelditu dezala eta Kontxatik Easo Plazaraino hiriaren azpitik aurikusitako obrak esleitzeko eta lanei berrekiteko asmoa bertan behera utzi dezala eskatzeko.

Ez dugu onartzen Metroaren obra halabeharrez eta guztiaren gainetik amaitzera behartuta dagoenik. Are gutxiago, Eusko Jaurlaritzak esleitu duen Proiektuan ohartarazten denean *"baldintza geotekniko oso txarrak dituen zati batekin aurkitzen garela" eta "tunela egiteak ehundaka metrotako distantzian lurrazaleran desegonkortzeak eragin ditzakeela, baita trazadutik oso urrun dauden eraikinen osotasunari ere kalte egin ahal zaiolarik"*. Halaber, Itsasertzetako Zerbitzuak Kontxako hondartzan Metroaren eraikuntza lanekin eragin den ingurumen-erasoa egiaztatu du, eta *"tunelaren obrak, zeinak hondartzaren errealitate fisikoan eragin kaltegarria izan duten, geldiaraz daitezela"* eskatu du, *"harik eta itsas-lur eremu publikoa zeharkatzen duen trazaduaren azterketa oso bat egiten den arte"*. Onartezina da, edonondik, Jaurlaritzak eta Udal-Gobernuak halako arriskuak eta eragin kaltegarriak jendaurrean isilpean gordetzea.

Gauzak horrela, gaurregun inoiz baino arrazoi sendoagoak daudela adierazten dugu zentzugabeko azpigitura-lan hori geldiarazteko. Horrenbestez, Donostiako Metroaren Mirakontxa-Easo zatia egiteak dakartzan ingurumen-erasoa, gainkostu altuak eta eraikuntza-arrisku oso larriak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak obraren lizitazioa eta lanei berrekiteko asmoa bertan behera utzi ditzala eskatzen dugu irmoki.

Donostiako Metroaren egitasmoa era zabal batean jarri da auzitan, egindako hutsegite larriengatik eta ezinbesteko azterketa teknikoen gabeziarengatik ezezik, makro-proiektu hori herritarren parte handi baten iritzi zeharo behargabekoa eta xahuketa ekonomiko itzela delako baizik. Jaurlaritzak era inposatzailean eta herritarren inongo partehartzerik gabe ezarri du proiektua. Metroaren pasantea hiriko garraio publikoarentzat apustu okerra da bestalde, Dbus-en zerbitzuetan murrizketa garrantzitsuak planteatzen bait ditu egitasmoak, autoen trafikoa apenas gutxitu gabe. Bistan dena, obraren negozio handiarekiko interesak eta hirigintza-arloko ondorio urbanistiko nabarmenak daude jokoan.

Batetik, Metroaren pasanteak Easo Plazako EuskoTrenen geltoki nagusia ezabatzen baitu etxegintza-operazio handi bat sustatze aldera. Bestetik, trenbide trazadu zentralizatzaile bat ezartzen du Erdialde-Kontxako zonalde turistiko eta komertzialaren inguruan, San Bartolome Muinoan egin nahi dituzten merkatalgune handien gisako negozio inmobiliarioak laguntze aldera, noski. Aldiz, ezikusia egiten dute obrak hirigunean eragindako ingurumen-eraso etengabearen eta bizilagunek jasandako kalteen aurrean, edota langileek salatzen dituzten legezkantza lanaldien eta segurtasun arloko lan-baldintzen urraketa larrien aurrean. Lanak hasi zirenetik hiru urte igaro direnean, gastu handienak oraindik egin gabe daude eta Eusko Jaurlaritzak aurtengo aurrekontuetan 142 milioi gehiago agindu ditu 2025 urtera bitartean "obra faraoniko" horren eraikuntzarako.

Hori denagatik, herritar, elkarte, talde eta erakunde sozial nahiz politiko guztiengana jotzen dugu, Donostiako Metroaren obrak gelditzearen aldeko adierazpen honekin bat egin dezazuen eskatzeko:

- **Sustengu horiek Satorralaiari komunikatu behar dira** (satorralaia@gmail.com).
- **Manifestuaren idatzia ekarpen berriei osatzeko aukera dago** (proposamenik egin nahi baduzue, harremanetan jar zaitezte).
- **Bildutako atxikimenduak apirilaren 15ean argitara ematea da gure asmoa, Eusko Jaurlaritzak Alderdi Ederren duen egoitzaren aurrean egingo den prentsa-agerraldi baten bidez. Ekintza informatibo hortan zuen partehartzea espero dugu.**

Ekimen honekin bat egiteko eta manifestuari zuen inguruan zabalpena emateko eskatzen dizuegu beraz.

Lan zentzugabe hau gelditzeko unea da!

Satorralaia bizilagunen mugimendua

MANIFIESTO POR LA PARALIZACION DEL METRO EN DONOSTIA: Recogida de adhesiones

La construcción del Metro sigue representando hoy en Donostia uno de los mayores problemas que afectan a la ciudad. A los graves sucesos y sobrecostes de la obra que han provocado preocupación e indignación en la ciudadanía, se añaden ahora las advertencias verdaderamente alarmantes presentes en el nuevo Proyecto Constructivo del tramo Miracóncha-Easo respecto a los riesgos que conlleva la ejecución de esta infraestructura. Consideramos que esta situación evidencia irrefutablemente el gran error de la pasante de Metro. Por ello hacemos un llamamiento a la movilización de la opinión pública para reclamar la paralización del proyecto y exigir al Gobierno Vasco que suspenda la nueva adjudicación y la reanudación de las obras proyectadas bajo la ciudad desde La Concha hasta la Plaza Easo.

No aceptamos que la obra del Metro esté inexorablemente condenada a finalizarse por

encima de todo. Más si cabe, cuando el propio Proyecto licitado por el Gobierno Vasco advierte que *"nos encontramos con un tramo con unas condiciones geotécnicas muy adversas"* y ello *"provoca que la ejecución del túnel pueda originar inestabilidades en superficie a cientos de metros de distancia, pudiendo llegar a afectar a la integridad de las edificaciones, incluso muy alejadas de la traza"*. Asimismo, el Servicio de Costas ha certificado la agresión ambiental generada por la obra en La Concha y ha requerido que *"las obras del túnel, las cuales han influido negativamente en la realidad física de la playa, queden paralizadas hasta que se realice un estudio completo de la traza en el dominio público marítimo-terrestre"*. Resulta inadmisibile que tales riesgos e impactos negativos sean silenciados ante la ciudadanía por el Gobierno Vasco y el Gobierno municipal.

En consecuencia, manifestamos que hoy existen una serie de razones más contundentes que nunca para poner freno a esta insensata obra de infraestructura. Por ello exigimos al Gobierno Vasco la suspensión de la adjudicación y de la reanudación de las obras del tramo Miraconcha-Easo debido a los elevados sobrecostes, el impacto ambiental y los gravísimos riesgos que conlleva su ejecución.

La pasante de Metro ha sido ampliamente cuestionada, no solo por los graves errores cometidos y la falta de estudios técnicos indispensables, sino porque una gran parte de la población considera que este macro-proyecto es un derroche económico absolutamente innecesario. El proyecto ha sido impulsado por el Gobierno Vasco de forma totalmente impositiva y sin ninguna participación ciudadana. Es también una apuesta equivocada para el transporte público de la ciudad, puesto que el proyecto plantea importantes supresiones y bajadas en los servicios de Dbus, sin reducir apenas el tráfico de coches. Obviamente, su construcción responde al interés por el gran negocio de la obra y a las fuertes implicaciones urbanísticas del proyecto. Por un lado, la pasante de Metro elimina la estación central de EuskoTren en la Plaza Easo con claros fines edificatorios. Por otro, establece un nuevo trazado ferroviario centralizador en torno a la zona comercial y turística del Centro-La Concha, sin duda en beneficio de negocios inmobiliarios como las grandes superficies comerciales promovidas en el Cerro de San Bartolomé. Ni se habla de la permanente agresión ambiental que genera la obra en el medio urbano, los daños que viene causando al vecindario, ni de las jornadas ilegales de trabajo y las condiciones de gran inseguridad laboral que denuncian los trabajadores. Habiendo transcurrido tres años desde el inicio de las obras, los mayores gastos están todavía sin realizarse y los presupuestos del Gobierno Vasco destinan este año un total de 142 millones más a la construcción de esta obra "faraónica" hasta el 2025.

Nos dirigimos por ello a todas las personas, asociaciones, colectivos, organizaciones sociales y grupos políticos para que muestren su adhesión a este manifiesto por la paralización del Metro en Donostia:

- **Los apoyos deben comunicarse a Satorralaia (satorralaia@gmail.com).**
- **El texto del manifiesto está abierto a posibles aportaciones** (si queréis realizar alguna propuesta, poneros en contacto).
- **Las adhesiones al manifiesto se harán públicas en una comparecencia de prensa que tenemos previsto realizar el 15 de abril ante la sede del Gobierno Vasco en**

Alderdi Eder, donde esperamos igualmente vuestra participación.

Os pedimos por tanto apoyar esta iniciativa y difundir el manifiesto en vuestro entorno.

Lan zentzugabe hau gelditzeko unea da!

Movimiento vecinal Satorralaia

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/manifiesto-por-la-paralizacion-del